



ESKUBIDEAK GUZTIONTZAT?

Patria telesailaren 5. atala (HBO, 2020)

Iraupena: 52 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

Batxilergoa.

HELBURUAK

- + Terrorismoak gure herrian egindako ekintza izugarriak identifikatzea, horien ondorioei buruz hausnartuz, eta Euskal Herriko herri askotan ETA jardunean zegoen bitartean zegoen gizarte-giroa ezagutzea.
- + Terrorismoaren biktimen sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea.
- + Arrazoi ideologiko edo politikoengatik diskriminazioak edo indarkeria erabiltzeak berez dakarren bidegabekeria aitortzea.
- + Hainbat gairi buruz modu kritikoan hausnartzea, hala nola giza eskubideen errespetuari buruz, gizabanakoaren eta taldearen erantzukizunari buruz (erasotzen zaienean), eta memoriari buruz.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, jarduera egiteko ezinbestekoa izango da ulermenezko irakurketa eta ahozko adierazpen egokia.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu, eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzak baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 90 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 50 minutu telesailaren atala ikusteko eta 40 minutu ondorengo jarduerarako.

BALIABIDEAK

Patria telesailaren 5. atala (HBO, España). Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta gailu mugikorrak, hala nola smartphoneak edo tabletak. Arbel edo horma-irudi bat ere erabiltzea gomendatzen da.

EGILEA

Roncesvalles Labiano

IRADOKITAKO JARDUERA

Patria telesailaren 5. atala ikusi ondoren, lauzpabost ikasleko taldeak eratzen dira. Talde bakoitzak interneten bilatu behar du 1948an Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (GEAU). Munduko eskualde guztietako ordezkariak egindako dokumentua da, eta mundu osoan babestu behar diren oinarritzko giza eskubideak ezartzen ditu lehen aldiz.

GEAU QR kode edo web helbide honen bidez aurki daiteke:



<https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>





Herritar anonimo bat ETAk Euskal Herrian egindako atentatu batean zauritutako polizia bat artatzen ari da (1988/12/18). Javier Fernández, El Correo.

Ikasleek Adierazpenaren lehen hogei artikulua irakurri behar dituzte, eta, ondoren, galdera hauei erantzuten saiatu:

1

Patriaren kapitulu honetan agertzen diren istorioak Euskal Herriko herri askotan urteetan gertatu zenaren adierazgarri dira. GEAU irakurrita, uste duzue giza eskubideak errespetatu zirela?

2

Kapitulu honetan ikusten diren zer ekintza eta jarrera zehatz daude eskubide horien aurka? Eta zein eskubide zehatzen aurka egiten da?

3

Zer uste duzue egin zezaketela Arantxa edo Gorka bezalako pertsonak, edo edozein herritar arruntek, ikusten zituzten bidegabekeriaren aurrean?

4

Ezin dugu denbora atzera bota, baina uste duzue gertatutakoa ezagutzeak eta gogoratzeak lagun dezakeela egin ziren bidegabekeriak nolabait konpontzen?

Erantzun ondoren, ikasleei beren gogoetak partekatzeko gonbita egiten zaie. Horma-irudi bat edo arbel bat erabil daiteke elkarrizketatik sortzen diren ideiak apuntatzeko.